



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023ko otsaila

ZITISINA FINANTZAKETAN SARTZEA

Otsailean, zitisina sartu da finantzaketan; zehazki, **Todacitan® 1,5 mg-ko konprimatuak**, helduentzako indikatuta, erretzeari uzteko prest dauden erretzaileen tabako-mendekotasuna tratatzeko eta nikotinarekiko mendetasunaren antsietatea murrizteko.

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

TALIDOMIDA MERKATURATZEA

Otsailaren 2an talidomida merkaturatu zen Espainian.

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

BYDUREON® MERKATUTIK KENTZEA

Laborategiak **Bydureon® 2 mg astean** (GLP1aren exenatida agonista) merkatutik kendu du; beraz, tratamendu hori zuten pazienteek ordezeko alternatiba bat izan beharko dute.

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

COVID-19AREN KONTRAKO TXERTOEI BURUZKO FARMAKOZAINTZAKO 19. TXOSTENA

Txosten honetan, segurtasun-gai hauei buruzko informazioa eguneratzen da:

- **Comirnaty®**: zorabioa balizko kontrako erreakzio gisa identifikatzen da.
- **Vaxzevria®**: larruazaleko baskulitisa erreakzio kaltegarri posible gisa identifikatzen da.

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

2023KO EGUNERATZEAK HAURRAK ETA HELDU OSASUNTSUAK TXERTATZEKO EGUTEGIAN

Txertaketetarako Euskadiko Aholku Batzordearen gomendioei jarraituz, 2023rako hainbat eguneraketa ezarriko dira gure erkidegoan.

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITARATUTAKO INFAC BERRIA

Web-orrian eskuragarri duzue INFAC buletin berria "[Kolesterola eta gaixotasun kardiobaskularraren prebentzio primarioa: oraindik bada eztabaida](#)" izenburuarekin.

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

AGENTZIAREN (AEMPS) KOMUNIKAZIOA, PROFESIONAL SANITARIOEI ZUZENDUA

LEBOTIROXINA: Biotinaren interferentzia tiroide-funtzioko laborategiko probekin.

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Horiek dira 2023ko urtarrileko berrikuntzak.

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

2023ko urtarrileko nabarmenenak.

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

ACTOCORTINA VIAL BOTIKAREN IZENA ALDATZEA

10

[Jarraitu irakurtzen](#)

Todacitan® 1,5 mg-ko konpimituak finantzaketan sartu da. Helduentzat indikatuta dago, erretzeari uzteko prest dauden erretzaileen tabako-mendekotasuna tratatzeko eta nikotinarekiko mendetasunaren antsietatea murrizteko.

Finantzaketa-baldintzak:

- Pazienteek tabakoa erretzeari uzteko banakako edo taldeko laguntza-programa batean sartuta egon behar dute.
- Gainera, pazienteek ezaugarri hauek izan behar dituzte:
 - Erretzeari uzteko berariazko motibazioa duten pazienteak, azken urtean erretzeari uzteko ahaleginarekin egiazta daitezkeenak.
 - Egunean 10 zigarreta edo gehiago erretzen dituzten eta, gainera, Fagerström-en testaren arabera mendekotasun-maila handia duten pazienteak: ≥ 7 .

Osabide Globaleko "Tabakoaren gaineko esku-hartzea: hasierako balorazioa" eta "Tabakoaren gaineko esku-hartzea: segidako balorazioa" formulario korporatiboak bete beharko dira.

Esperientzia kliniko murrizta dela eta, ez da gomendatzen 65 urtetik gorakoetan Todacitan erabiltzea.

Paziente bakoitzeko, laguntza farmakologikoarekin erretzeari uzteko saiakera bat finantzatuko da urtean.

Preskripzioa ontzi baterako egingo da (100 konprimatu), 25 eguneko tratamendu-ziklo osorako nahikoa.

Errezeta elektronikoko sistemaren bidez emango da. Tratamendua finantzagarria izan dadin, "Tabakoa uztea" marka

aktibatu behar da preskripzioa Presbiden egitean.

Deshabitución ☐

- Fitxa teknikoa
- Medikamentuak ebaluatzeko fitxa (Nafarroa)

[Itzuli HASIERAra](#)

Otsailaren 2an talidomida merkaturatu zen Espainian.

- Baimendutako indikazio bakarra, melfalanarekin eta prednisonarekin batera, lehen aukerako tratamendua da tratatu gabeko mieloma anizkoitza duten ≥ 65 urteko pazienteentzat, edo dosi handietan kimioterapia jaso ezin duten pazienteentzat.
- Sortzetiko malformazioak eragiteko arriskuaren ondorioz, talidomida erabiltzea kontraindikaturatuta dago haurdun dauden emakumeentzat. Haurdun gera ahal diren emakumeen eta gizonen kasuan, Haurdunaldia Prebenitzeko Programan ezarritakoa betetzen bada soilik preskribatu ahal izango da.
- Sarrera kontrolatuko sistema bati lotuta dago hori preskribatzea eta ematea.

Hemen sakatuz kontsulta daiteke segurtasun-ohar osoa (MUH (FV), 01/2023) [hemen](#).

[Itzuli HASIERAra](#)

3

BYDUREON MERKATUTIK KENTZEA

Laborategiak **Bydureon® 2 mg astean** (GLP1aren exenatida agonista) merkatutik kendu du; beraz, tratamendu hori zuten pazienteek ordezeko alternatiba bat izan beharko dute.

2021eko urriko farmaHitzak txostenean adierazi zen bezala, gaur egun oraindik ere arazoak daude GLP-1aren zenbait agonista hornitzeko. Urriko informazio-oharrean, AEMPSeK gomendatzen du asteko aGLP1en ordezeko egunekoak erabiltzea.

[Itzuli HASIERAra](#)

4

COVID-19AREN KONTRAKO TXERTOEN BURUZKO FARMAKOZAINZAKO 19. TXOSTENA

Txosten honetan, segurtasun-gai hauei buruzko informazioa eguneratzen da:

- **Comirnaty**: zorabioa balizko kontrako erreakzio gisa identifikatzen da.
- **Vaxzevria**: larruazaleko baskulitisa erreakzio kaltegarri posible gisa identifikatzen da.

2022ko abenduaren 31ra arte, 111.293.866 txerto-dosi eman dira Espainian COVID-19aren aurka, eta kontrako gertaeren 84.650 jakinarazpen erregistratu dira. Hauek dira gehien jaso diren gertaerak: nahasmendu orokorrak (sukarra eta ondoeza), nerbio-sistemakoak (zefalea eta zorabioak) eta sistema muskuloeskeletikokoak (mialgia eta artralgia).

Txosten osoa [hemen](#) sakatuz kontsulta daiteke.

[Itzuli HASIERAra](#)

5

2023KO EGUNERATZEAK HAURREN ETA HELDU OSASUNTSUEN TXERTAKETA-EGUTEGIAN

Txertaketetarako Euskadiko Aholku Batzordearen gomendioei jarraituz, 2023rako hainbat eguneraketa ezarriko dira gure erkidegoan.

Haur osasuntsuen txertaketa:

1. **Gripearen txertoa**: Gripearen aurkako txertoaren dosi 1 emango zaio 6 eta 59 hilabete bitarteko populazio-taldeari.
2. **B meningokokoaren aurkako txertoa**: B serotaldeko meningokokoaren aurkako txertoa sartu da haurrentzat, 3 dosiko pautarekin /2, 4 eta 12 hilabeterekin), 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako haurrentzat.
3. **Txertaketa 6 urterekin**: 2017an egin zen haurrak txertatzeko egutegiaren aldaketarekin jarraituz, 2017tik aurrera jaiotako biztanleen txertaketan (2023ko urtariletik aurrera 6 urte beteko dituzte), polio inaktibatuaren dosi 1 sartuko da, eta difteriaren, tetanosaren eta kukutxeztul azelularren kontrako karga txikiko txertoaren (dTpa) ordezkari, difteriaren, tetanosaren eta kukutxeztul azelularren kontrako karga handiko (DTPa) beste bat jarriko da. Bi txertoak konbinatuta emango dira, aurkezpen tetrabalente batean (DTPa-VPI).
4. **Giza papilomaren birusaren (GPB) aurkako txertoa**: Aurrerantzean, 12 urteko mutikoei ere emango zaie GPBren aurkako txertoa. Txertaketa 2023/2024 ikasturtean hasiko da (2012an jaiotako kohortea), nesken txertaketa-jarraibide berarekin: 2 dosi eta 6 hilabeteko tarte dosien artean.

Heldu osasuntsuen txertaketa:

1. Zoster herpesaren aurkako txertoa sartu zaie urte horretan 65 urte betetzen dituzten pertsonen (2023an 1958an jaiotako kohorteari dagokio).

Haurren txertaketa ere eguneratu da: haur goiztiarrak eta asplenia duten haurrak.

[Hemen](#) sakatuta kontsulta dezakezu nota osoa.

[Itzuli HASIERAra](#)

6 ARGITARATUTAKO INFAC BERRIA

[Web-orrian](#) eskuragarri duzue INFAC buletin berria "[Kolesterola eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio primarioa: oraindik bada eztabaida](#)" izenburuarekin.

Buletin honetan, lipidoen tratamendu farmakologikorako gomendioen indarraldia berrikusten da, OSN-Ostebaren Gidako gaixotasun kardiobaskularren lehen mailako prebentzioko arrisku kardiobaskularreko faktore gisa, azterlan berriak eta hedapen handiko praktika klinikoko beste gida batzuen eguneratze berriak oinarri hartuta.

Gaixotasun kardiobaskularren lehen mailako prebentzioan lipidoen praktika klinikoaren giden laburpen-taula bat ere prestatu da.

Dokumentuetarako estekak:

- Buletina [Txostena \(PDF, 1 MB\)](#) 
- Aurkezpena [PowerPoint \(PPTX, 620 KB\)](#) 
- Taula [Lipidoen praktika klinikoaren giden laburpena/gaixotasun kardiobaskularren lehen mailako prebentzioa \(PDF, 145 KB\)](#) 

[Itzuli HASIERAra](#)

7 AGENTZIAREN (AEMPS) KOMUNIKAZIOA, PROFESIONAL SANITARIOEI ZUZENDUA

LEBOTIROXINA: Biotinaren interferentzia tiroide-funtzioko laborategiko probekin.

- Biotinak interferentziak eragin ditzake tiroideko immunoanalisietan, biotinaren eta estreptabidinaren arteko interakzioan oinarrituta.
- Metodo analitiko horiek praktika klinikoan erabili ohi dira tiroide-funtzioa neurtzeko eta kontrol terapeutikoa egiteko, lebotiroxinako dosia doitzeko.
- Saiakuntza motaren arabera, tiroide-funtzioaren proben emaitzak faltsuak izan ahal dira, eta oso altuak edo txikiak izan. Horrek pazienteen modu desegokian maneiatzea edo diagnostiko okerra egitea ekar dezake.
- Tiroide-funtzioaren proben emaitzak ez badatoz bat pazientearen egoera klinikoarekin edo beste miaketa batzuekin, biotinarekin interferentzia izateko aukera aztertu behar da.
- Tiroide-funtzioko probak eskatu aurretik pazienteei biotinaren erabilerari buruz galdetzea gomendatzen da. Paziente bat biotina hartzen ari bada, laborategiko langileei jakinarazi behar zaie probak eskatu aurretik; izan ere, baliteke proba alternatiboak eskuragarri egotea.
- Pazientei gomendatu behar zaie medikuari edo laborategiko langileei kontsulta egiteko, baldin eta biotina hartzen ari badira edo hartu berri badute. Era berean, jakin behar dute har ditzaketen beste produktu batzuek ere, hala nola multibitaminikoek edo ilearentzako, larruazalarentzako eta azazkalentzako gehigarriek, biotina eduki dezaketela eta tiroide-funtzioaren proben emaitzei eragin diezaieketela.

[Hemen](#) klik eginez kontsulta daiteke farmakozaintzako karta osoa.

[Itzuli HASIERAra](#)

Hauek dira 2023ko urtarrileko berrikuntzak:

2023ko urtarrila		
	Enpagliflozina	Jardiance® 10 mg konp. FINANTZAKETA ZABALTZEN ZAIE bihotz-gutxiegitasun kronikoa duten pazienteei, <u>baldintza hauetan</u> (posizionamendu terapeutikoko txostenaren baldintzen arabera): ○ IC-FER (FEVI $\leq$ % 40) duten pazienteak eta NT-proBNP plasma-maila altuak, ICFe-rerako gomendatutako egungo terapiekin kontrolatu gabeak (AEBI edo ARA II edo sakubitriilo/balsartana BBrekin eta ARM batekin batera; intolerantzia edo kontraindikazioa izan ezik). ○ FEVI $>$ % 40 duten pazienteak, sintomatikoak eta NT-proBNP altua dutenak. Fitxa teknikorako esteka.
	Dapagliflozina	Edistride®, Forxiga® 10 mg konp. INDIKAZIO BERRIA: giltzurruneko gaixotasun kronikoaren tratamendua helduengan. <u>Honako baldintza hauetan finantzatzan da</u> (posizionamendu terapeutikoko txostenaren baldintzen arabera): giltzurruneko gaixotasun kronikoa duten helduak (kalkulatutako iragazte glomerularra $\geq$ 25 eta $\leq$ 75 ml/min/1,73 m²), 2 motako diabetes mellitusekin edo gabe, baldin eta: ○ Albumina kreatinina ratioa gernuan (RAC) 200 eta 5.000 mg/g artean, eta RACa 3 hilabetez edo gehiagoz handitu izanaren ebidentzia. ○ Kontrolatu gabeak, nahiz eta tratamendua lehen lerroko terapien dosi egonkor optimizatuarekin egin (AEBI edo ARA II). Posizionamendu terapeutikoari buruzko txostenerako esteka.
	Zitisina	Todacitan® 1,5 mg konp.: FINANTZAKETAN SARTZEA. Helduentzat indikatuta dago, erretzeari uzteko prest dauden erretzaileen tabako-mendekotasuna tratatzeko eta nikotinarekiko mendetasunaren antsietatea murrizteko. <u>Finantzaketa-baldintzak:</u> • Pazienteek tabakoa erretzeari uzteko banakako edo taldeko laguntza-programa batean sartuta egon behar dute. • Gainera, pazienteek ezaugarri hauek izan behar dituzte: ○ Erretzeari uzteko berariazko motibazioa duten pazienteak, azken urtean erretzeari uzteko ahaleginarekin egiazta daitezkeenak. ○ Egunean 10 zigarreta edo gehiago erretzen dituzten eta, gainera, Fagerström-en testaren arabera mendekotasun-maila handia duten pazienteak: $\geq$ 7. Osabide Globaleko "Tabakoaren gaineko esku-hartzea: hasierako balorazioa" eta "Tabakoaren gaineko esku-hartzea: segidako balorazioa" formulario korporatiboak bete beharko dira. Paziente bakoitzeko, laguntza farmakologikoarekin erretzeari uzteko saiakera bat finantzatuko da urtean. Preskripzioa ontzi baterako egingo da (100 konprimatu), 25 eguneko tratamendu-ziklo osorako nahikoa.

		Errezeta elektronikoko sistemaren bidez emango da. Tratamendua finantzagarria izan dadin, "Tabakoa uztea" marka aktibatu behar da preskripzioa Presbiden egitean. - Fitxa teknikoa - Medikamentuak ebaluatzeko fitxa (Nafarroa)
--	--	---

2020ko urtarritetik berriak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[Itzuli HASIERAra](#)

9 HORNIDURA-GABEZIARI ETA HORNIDURA BERREZARTZEA

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIk garrantzitsuenak:

- **Zinnat® 500 mg 10 zorroak.** Zefuroxima axetiloa. Alternatiba: 250 mg-ko aurkezpena konprimatuetan eta 250 mg/5 ml-ko suspentsioa.
- **Dicorynan 100 mg kapsula.** Disopiramida. Baloratu beste antiaritmiko bat erabiltzea.
- **Bydureon® 2 mg pluma.** Exenatida. Ez dago eskuragarri. Gaur egun merkatuan dauden loteak 2023ko otsailean iraungitzen dira.
- **Cholestagel® 625 mg konprimatuak, pelikulaz estalia, 180 comprimituak.** Kolesebelama. Atzerriko medikamentu bezala eskatu daiteke, txostena eskatzen du.
- **Vagirux® 10 mcg 18 konprimatuak, baginalak.** Estradiola. Alternatiba: aurkezpen ez-finantzatu bera (Vagifem®).

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Mastical D® 500 mg/800 UI 30 konprimatuak mastekagarriak.** Kaltzio karbonatoa/kolekaltziferola.
- **Duracef® 250 mg/5 ml 60 ml-ko flaskoa.** Zefadroxiloa.
- **Colicursi ciclopléjico® 10 mg/ml kolirioa soluzioa, 10 ml.** Ziklopentolatoa.
- **Lantanon® 30 mg 30 konprimatuak.** Mianserina.
- **Simbrinza® 10 mg/ml + 2 mg/ml kolirioa.** Brinzolamida/brimonidina
- **Plurimen® 5 mg 50 konprimatua.** Selegilina.

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- [Hornidura-gabezien taula](#): Presbiden, zuzenean taula honetara daraman "Hornidura ezak" botoia txertatu da:



[CIMA-AEMPSen: AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

ACTOCORTINA 100 MG VIAL orain ACTOCORTINA 75 MG VIAL izango da.

Biak ZEHAZKI GAUZA BERA dira, printzipio aktiboaren izendapena soilik aldatu da, Europak izendapena OINARRIZKO MGan (hidrokortisona 75 mg) izatera behartzen duelako, eta EZ GATZ MGan (hidrokortisona fosfato sodikoa 100 mg).

Biek dute OINARRIZKO HIDROKORTISONA KOPURU BERA (75 mg).

[Itzuli HASIERAra](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetan jasotako edukiak Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileko buletinetik egokitu dira.